higiezinak, gasolindegia, optikak eta stand konponbideak. Zerbitzu horiekin guztiekin, elikagaien banaketako nagusitasuna osatzea dugu helburu.



Eroski Bidaiak, prezio onak baino askoz gehiago. 2004an, gure aisia- eta atsedeen-bidaien arloan, 207 establezimendu zeuden. Egun, bulego-kopurua handitzera bideratzen ditugu ahaleginak, eta merkataritza-eredua berritzera; izan ere, bezeroek beren oporren diseinuan zuzenean parte hartzea nahi dugu. Horrenbestez, kalitate handiko produktuak eskaintzen jarraitzen dugu; hala berresten dute ISO 9000 eta Espainiako turismo-kalitateko Q egiaztagirik.

Travel Air enpresa-bidaien negozio-linea. Ezaugarri hauek ditu: espezializazio handia, kudeaketa gardena eta nazioarteko estaldura handia.

Perfumeria. Gaur egun, kateak 172 saltoki ditu, Aragoiko Dyper katea eta Asturiaseko Brisas katea (azken hori erkidegoko liderra) erosi ondoren, eta In Faradis katea eratu duen hedapen-ahalegin handia egin ondoren. 2003an, kate horrek irudia eta marka bateratu ditu penintsula osoan.

Aisia eta kirola. Aisia- eta kirol-dendak Eroski Taldearen beste negozio-linea bat dira. Guztira, 31 denda fisiko dugu, eta denda birtual bat. Akziodunen artean, 56 kirolari bazkide daude, zenbait arlotakoak. Forum izeneko establezimenduak merkataritza-guneetan daude, eta Sportland izenekoak, berriz, hiriguneetan. Dendetan, espezialitate anitzeko kirol-produktuak eskaintzen ditugu, 18 sailetan.

Aisia eta kultura. Aisian eta kulturaren espezializatutako denda-eredu berria, Abac izenaren pean. Honela definitzen da: aisiaren erabilera erakargarrirako gunea da, jolas-, heziketa- eta kultura-eskaintza ematen du, sexismorik eta belizismorik gabea. Zenbait sail ditu: liburu-denda, paper-denda, hezkuntza-jokoak, eskulanak, arte ederrak, musika, multimedia eta jarduera-lantegi bat.

Servicios para los clientes de nuestras superficies

Optikak. Egun, bost optikak ematen diete aholkularitza- eta graduazio-zerbitzu pertsonalizatua gure bezero guztiei.

Gasolindegia. 38 gasolina-zerbitzugune dira 11 autonomia-erkidegotan; kalitatezko produktuak ematen dituzte, prezio lehiakorragoetan. Bezeroek ahalik lasterren eta erosoan erregaia hartu, ordaindu eta irtetea da haien helburu nagusia.

Lineako erosketak. Eroski Taldeak Gasteizko, Bilbo Handiko eta Iruñako elikagai-zentroetako bezeroei supermerkatu batean erosi ohi diren produktu guztiak (6.000 produktu baino gehiago) lineako zerbitzu baten bidez erosteko aukera ematen die, prezio lehiakorretan eta produktuen eta zerbitzuaren kalitate-bermearekin.

Higiezin salmenta. Proposamen integrala da: notario aurreko izapideak, etxebizitzaren erregistroa eta egituraketa, merkataritza-zerbitzu hobea eta erosketa-berme handiagoa. Gainera, aukera ugari dago, etxebizitzaren kokapenari eta formatuari dagokienez. Higiezin salmentak hainbat lekutako etxebizitzaren promozioak hartzen ditu barne, zerbitzuaren kalitate- eta seriotasun-bermerik handienarekin eta oso prezio lehiakorretan. Besteak beste, Andaluziako kostaldean, Mediterraneoko kostaldean, Errioxan, Kantabrian, Burgosen eta Costa Daurada delakoan egiten ditugu promozioak.

Soluciones Eroski Arteako, Iruñako, Abadiñoako eta El Boulevard-eko hipermerkatuetan kontratuzko zerbitzu eta produktuak eskaintzen dituen merkataritza-tokia da; hona hemen zerbitzu eta produktuak:

- Finantza-produktuak: hipoteka-maileguak eta mailegu pertsonalak.
- Aseguruak: Automobilak, Etxea, Osasuna, Bizitza, Istripuak eta Aldi baterako ezintasuna.
- Higiezin agentzia: promozioak eta urbanizazio pribatuak, kostaldean eta barrualdean.
- Eroski-Red txartelaren alta.

Marka propioak

Produktu bakoitzaren zenbait konposizio-estandarren eta berezko ezaugarrien segimendua egiteaz gain, marka propioko produktuen kalitatea eta elikagai-segurtasuna bermatzea da gure helburu nagusia, kontsumitzaileen eskubideak ziurtatzeko; horrez gain, kontsumo-aztura onak, osasungarriak, solidarioak eta ingurumena-

rekiko arduratsuak garatzeko informazio eta prestakuntza objektiboa eta egiazkoa eskaintzen ditugu. Hori dela eta, marka propioko produktuen ontzi, etiketa eta informazio-liburuxketan, haien xehetasun guztiak azaltzen dira; horrela, ahalik eta erabakirik onena hartzen laguntzen diegu kontsumitzaileei.



Eroski: gure marka propioko produktuen xehetasunen artean, kalitatea eta elikagai-segurtasuna bitan aztertu delako bermea dago. Horrez gain, ingurumenarekiko dugun konpromisoa islatzen dute, eta zenbait errealtatetara egokitzen dira, produktu-sorta handiagoa eskainita eta gizartearen eskaerei erantzunda: higiene pertsonaleko produktuak (animaliekin esperimenterik egin gabe testatuak), Omega 3dun arrautzak, esne bereziak, Ebroko Deltako arroza, jatorri-deiturako ardoa, bio turroiak, landare-kontserba ekologikoak, etab. Hori dela eta, gure bereizgarri diren bermearekin eta lehiakortasunarekin, bezero mota ororen oinarritzko premiei erantzuteko egiten dugu lan; izan ere, 6 milioi etxetako beharrak ase ditugu gaur egunera arte. Horrez gain, kalitaterik handiena, informazio baliagarria eta preziorik onenak emateko eta bezeroen osasuna zaintzeko konpromisoa hartu dugu.

Eroski Natur: Kategoria horrek kalitate handiko haragia, frutak eta barazkiak jartzen ditu kontsumitzaileen eskura, bai eta produktuen aukeraketa ziurtatua eta horien jatorriaren eta zapoaren bikaintasuna ere. Horrenbestez, eskaintzen dugun haragia jatorri nazionalakoa da, % 100. Lankidetzaren egonkorra dugu animaliak hazten dituzten granjekin, eta zorrotz kontrolatzen ditugu haziera-baldintzak. Frutari eta barazkiei dagokienez, *ekoizpen integratuko* labore-lurrik onenetakoak dira, heltze-baldintza ezin hobeetan bilduak, eta funtsezko tasen segimendua zorrotz baten pean, ahalik eta zaporerik onena izango dutela bermatzeko. Jatorritik saltokirainoko trazabilitate osoa bermatzen dugu.

Romester marka (kirol-materialena), Visto bueno (ehun-produktuena) eta Ecron (etxetresna elektriko eta irudi- eta soinu-gailuena) dira gure establezimenduetan soilik saltzen diren gainerako markak. Horiei dagokienez, UNE arau espezifikoak betetzen dituztela bermatzen dugu.

4


Gauzak egiteko beste modu bat

- 4.1 Antolamendu funtzionala
- 4.2. Barne-konpromisoen kudeaketa
- 4.3 Kanpo-konpromisoen kudeaketa

4.1 Antolamendu **funtzionala**

Eroski Taldeak egoitza nagusitik kudeatu eta kontrolatzen du negozio nagusia; hots, etxerako kontsumo handiko ondasun eta zerbitzuen banaketa. Hantxe daude Goi Zuzendaritza, →

egoitza funtzionalak eta gure jarduera garatzeko beharrezko euskarria ematen duten negozioen zuzendaritza.



Kontseilu Errektorea Sozietate Kooperatiboaren gobernu-, kudeaketa- eta ordezkapen-organoa da, eta Batzar Nagusiak ezarritako politika orokorrean oinarritzen da. Kontseilu Errektoreko Lehendakaria Kooperatibako Lehendakaria ere bada, eta baita kooperatibaren legezko ordezkaria ere.

Organo betearazlea Zuzendaritza Kontseilua da, eta Negozio Zuzendaritzek eta arlo funtzionaletako zuzendaritzek osatzen dute. Kontseilu horrek Taldeko Zuzendari Nagusia aukeratzen du; Kontseilu Errektoreak urtero berretsi behar du Zuzendari Nagusia. →

Zuzendaritza-funtzioa xedapen askeko eta konfiantzako printzipioaren arabera gobernatzen da. Zuzendariaren Estatutuan, korporazio-balioak (horiek transmititzeko konpromisoa hartzen du), jardunbideak eta zuzendariaren profila azaltzen dira.

Eroski Taldeko Korporazio Gobernuaren Urteko Txostenak jabetzaren egitura eta sozietatearen administrazioaren egitura jasotzen ditu. Txosten hori kontsultatzeko aukera badago, www.eroski.es gure web orrian.

4.2 Barne-konpromisoen kudeaketa

Besteak beste, bi helburu garrantzitsu ditu Eroski Taldeak:

- Pertsonak integratzen dituen eta haien garapen pertsonala eta profesionala bideratzen duen enpresa-proiektua eta -eredua sortzea.
- Kontsumitzaileak eta ingurumena babesteko konpromisoa hartzea eta, beraz, “gure jarduera-esparrua hobetzen laguntzea, gure gizarte-erantzukizunaren adierazle gisa”.

EFQM kudeaketa orokorreko eredua

Eroski Taldeak European Foundation of Quality Management (EFQM) delakoaren printzipioetan oinarritutako kudeaketa-eredua aplikatzen du; horri esker, kudeaketaren kalitatea balioztatzen eta arlo eta negozio guztiak hobetzeko neurriak hartu ahal izan ditugu. Eredu global hori kudeaketa-sistema horizontaletan zein bertikaletan dago oinarrituta, eta gure erakundeak hartutako konpromisoak aplikatuko direla bermatzeko balio duten helburu zehatzak, jarduera-planak, jarraibideak eta kontrol- eta segimendu-tresnak ezartzeko aukera ematen digu, bai eta kudeaketa-sistema globala lortzeko aukera ere. Esate baterako, Munduko Itunaren giza eskubideei, lan-arauei, ingurumenari eta →

ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko printzipioak identifikatzen ditugu eta, gure lan-ereduari jarraituz, garatu egiten ditugu.

Sistema hori erabiltzen hasteak gure ahalegin eta baliabideak bideratu ditu, eta, etengabeko hobekuntzaren bidez, gure bezero eta langileen gogobetetasunean eta eraginkortasun ekonomikoan oinarritu dugu kudeaketa. Gaur egun, bi Zilarrezko Q egiaztagiriri ditugu, EFQMren arabera kudeaketa-kalitatearen bikaintasun ereduagatik: bata, Elorrioko merkantzia orokorren plataforman (2002) eta, bestea, Zornotzako produktu freskoen plataforman (2004). Kudeaketa-eredu hori erakunde osoan hedatzeko lanean jarraitzen dugu.

Kalitatea Kudeatzeko Sistema

Lehiakortasun-maila handia lortzeko eta kontsumitzaileen eskubide eta interesen defentsa bermatzeko modurik onena produktu eta zerbitzuen kalitatearekin eta segurtasunarekin dugun konpromisoa da –ekoizpen-prozesutik etxean kontsumitzen diren arte–, baita informazio zorrotza eta egiazkoa hedatzea ere.

Kalitatearen kudeaketa gure jardunbidearen funtsezko oinarria da. Horrenbestez, kate osoan zehar kontrol sakonak ezarri ditugu, segurtasuna eta higieena bermatzeko:

- Hasierako ikuskaritza bat, Eroski markako produktuen hornitzaileak homologatzeko eta horien segimendu analitikoak egiteko.
- Kalitatea ISO 9001 Arauaren arabera kudeatzeko sistemak, produktuak hartzeko, biltegitratzeko, hotz-katea mantentzeko, bidaltzeko eta saltokietara garraiatzeko.
- Arriskuaren eta Kontrol Gune Kritikoen azterketa (AAPCC) saltokietan, produktuak egoera ezin hobean daudela, hotz-katea mantentzen dela eta instalazioetan higieena eta garbitasuna daudela egunero egiaztatzeko.
- Produktuen kalitate mikrobiologikoaren eta produktu freskoak maneiatzeko gainazalen higieenaren azterketak, aldian behin.
- Kalitatea kontrolatzeko sistemak eta tresnak egiaztatzeko barne eta kanpo-ikuskaritzak, aldian behin.
- Produktu freskoen trazabilitate-sistemak.

- Elikagai Alertako eta Produktuak Erretiratzeko (kalitatea dela-eta) Eskuliburua, segurtasuna eta Eroskik zuhurtziaren printzipiorako dituen irizpideak une oro bermatzeko.

Gure produktuen freskotasunaren eta osasungarritasunaren kalitate-estandarren trazabilitatea eta kontrola bermatzen ditugu, kontsumitzaileen eskubide eta interesen eta ingurumenaren defentsan etengabe aurrera egiteko. Hortaz, Kontsumitzaileen Balioa deritzoguna –Eroskiren lehentasunezko helburua– asetzen dugu.

Gure laborategia Produktuaren Kalitate Sailaren ezinbesteko elementua da; Kontsumo Sailaren barruan dago eta Zuzendaritza Nagusiaren mende. UNE-EN ISO/IEC 17025:2005 Arauaren (“Onespenaren ebaluazioa. Entsegu- eta kalibrazio-laborategien gaitasunerako baldintzak”) egiaztagiria du. Horrek bermatzen ditu emaitzen egiazkotasuna, legezko balioa eta trazabilitatea. Halaber, erreferentziazko laborategi gisa funtzionatzen du, azpikontrataturako laborategiak homologatzeaz arduratzen baita, haiek instalazioen eta lan-jardunbideen kontrola gainditutakoan.

Eroski Taldeko laborategia: lan-programak

Gure laborategian, zenbait analisi egiten dira. Gehienak konbinatuak dira, emaitzak ahalik zorrotzenak izateko, elikagaiak legeak emandako parametroak betetzen dituztela egiaztatzeko eta, zenbait kasutan, horien kalitateari buruzko epaiak emateko. Unitate kimikoan, konposizioari, kalitateari eta substantzia kaltegarrien presentziari buruzko datuak lortzen dira. Unitate mikrobiologikoak produktuak arriskutsuak (patogenoak) diren mikroorganismoak kutsatuta dauden aztertzen du. Unitate genetikoak –duela gutxi ezarritakoak– zenbait alderdi egiaztatzen ditu; besteak beste, produktuen egiazkotasuna eta elikagai-segurtasuna (ikus 5.1. “Kontsumitzaileak”, gehitutako analisi-prozedura berriak zein diren jakiteko).

- Konparaziozko analisiak egitea. EROSKI Consumer aldizkariak argitaratzen ditu, eta produktu baten marka nagusien kalitatearen eta prezioaren arteko konparaziozko ebaluazioak dira.

- Eroski produktuak aukeratzea. Eroski markako produktu bat merkaturatzeko gutxieneko baldintzak betetzen dituzten hornitzaileen aurretiko azterketa.

- Eroski produktuak kontrolatzea. Eroski markako artikuluen segimendua, hitzartutako kalitateari eusten zaiola egiaztatzeko.

- Genetikoki eraldatutako organismoak (GEOak) hautematea. Eroski markako produktuetan transgenikorik ez egoteko konpromisoa betetzen dela egiaztatzeko azterketa.

- Erreklamazioak. Bezeroen arazoen jatorria ikertzeko eta arazo horiek berriro gertatzea eragozteko beharrezkoa den analisi-prozedura.

- Eskualdeko sariak. Urtero egiten dugun eskualdeko hornitzaileen deialdi monografikoan, produktu irabazlea aukeratzea.

Unitate kimikoa:

- Gure ekoizpen-zentroetan egindako produktuak kontrolatzea. Analisi-kontrolak, haragi-produktuak egiteko →

zentroetan, gure ekoizpen-zentraletan eta Olilan olioak ontziratzeke gure instalazioan.

Unitate mikrobiologikoa:

- Kanpaina mikrobiologikoa egitea. Merkataritza-sare osoaren freskotasun-egoera, maneiuagatiko kutsadura eta patogenoen presentzia ebaluatzea.

- Balio-bizitza zehaztea. Produktu galkorren balio-bizitza zehaztea.

Azpikontratutako analisiak:

- Eroski Natur haragi-produktuetako hondakin-plana. Debe katutako gizentzeko eragilerik eta medikamentu-hondakinik ez dagoela bermatzea.

- Eroski Natur fruta eta barazkietan produktu fitosanitarioak kontrolatzeko plana. Produktu fitosanitarioen eta pestiziden kantitatea legeak onartzen duenaren erdia dela ziurtatzea.

- Zentro eta plataformetan higie nea monitorizatzea. Zentro eta plataformetako gainazal eta tresnen kutsadura-maila aztertzea, horien egoera mikrobiologikoa eta garbitasun-produktuen egokitasuna ebaluatzeko.

- Janariz bestelako produktuak kontrolatzea. Laborategi espezializatuak behar dira, elikadurazkoak ez diren produktuak aztertzeke; hala nola, drogeriakoak, kosmetikakoak eta bazarrekoak.

Kontsumo osasungarria eta kalitatezkoa bermatzeari begira eta prozedura berriak sartzeko gai den berrikuntza teknologikoaren aitzindaria izateko, Eroskin, berrikuntza teknologikoaren alde egin eta berrikuntza teknologikoko zentroekin egiten dugu lan, gure elikagai-arloko I+G Planarekin bat etorritik. Plan horren ondorioz, gero eta proiektu berri gehiago hartzen dugu parte, geroago, 5.1. kapituluan ("Kontsumitzaileak") azalduko dugun moduan. Hona hemen aurrera eraman ditugun proiektu egonkorak:

- Elikagaiak PCR bidez aztertzekeo teknikak garatzea, Gaiker Zentro Teknologikoarekin elkarlanean. PCR bidezko azterketa horrek ADN zatiak identifikatzeko aukera ematen du, eta mikroorganismo patogenoak hautemateko eta elikagaietako espezie eta osagai transgenikoak identifikatzeko erabiltzen da.
- Barazki-ekoizpenean, ekoizpen integratuko teknikak ezartzea, Neiker →

Zentro Teknologikoarekin elkarlanean. Izurri eta gaixotasunen kontrolean, borroka teknologikoko prozedurak erabiltzea, nekazaritza-ekoizpenaren ingurumen-eragina eta horren ondoriozko kutsadura ahalik gehien txikitzekeo.

- Janari prestatuaren kalitatea eta iraunkortasuna hobetzekeo, AINIA Zentro Teknologikoarekin elkarlanean. Ontziratzekeo material eta teknologia berriak hobetzekeo eta ikertzekeo proiektuak.
- Hotz-katea ziurtatzea, Mondragon Unibertsitatearekin elkarlanean. Saltokietako hotz-altzariak monitorizatzekeo eta hobetzekeo ikerketa, eta hotz eteneko instalazioari buruzko ikerketa, hotz-katea mantentzea bermatzekeo.

Kudeaketa Etikorako Sistema

Langileekin konprometitzen gara ekoizpen-kate osoan, gure kontrol- eta sentsibilizazio-lanaren erakusgarri. Giza eskubideen errespetua eta babesa –Eroskiren lehentasunezko helburuetako bat– erakundea osatzen dugun guztion helburua da; izan ere, jarduten dugun leku guztietan, pertsonen ongizate fisikoa, psikologikoa eta soziala zaintzen ditugu. Hori dela eta, SA:8000:2001 Arauaren egiaztagiria lortu dugu

Barne-segimendua eta gure hornitzaileen segimendua eskatzen du gure erantzukizunak. Baina batik bat gure ekoizlerik kritikoen segimendua da garrantzitsua. Haientzat, etorkizuneko plan bat diseinatu dugu, kanpo-ikuskaritzen bidez 8000:2001 SA Arauan ezarritako irizpideak pixkanaka betez doazela bermatzekeo. Kudeaketa Etikoko Sistema bat ezartzeko konpromisoa gauzatu dugu, gure →

alderdi interesdunak –bai barrukoak, bai kanpokoak– kudeatzeko lagungarria izango delakoan. Batzorde Etikoa egiten du sistema horren segimendua, eta batzordea hauek osatzen dute: Zuzendaritza Nagusiak, Kontsumo Zuzendaritzak, Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritzak, Gerentzia Sozialak eta Erosketa Zuzendaritzak. Beraz, konpromiso handia hartuta dugu helburuak lortzekeo.

Inplementazioa aginte-aula baten bidez agintzen da, eta aula horren helburua gure harremanak kudeatzen dituzten adierazleen etengabeko hobekuntza da; hain zuzen, hornitzaileekiko harremanak (lan-baldintzak, laneko osasuna eta segurtasuna...), langile bazkideekikoak (partaidetza, zenbait kolektiboren integrazioa, prestakuntza, errotazio-tasa boluntarioa, ordainketa, pertsonen gogobetetasuna...), kontsumo- →

bazkideekikoak (urteko altak, balioztatze-inkestak, partaidetza-indizeak...), gizartearekikoak eta ingurunearekikoak.

Urtean behin, Batzorde Etikoko kideek barne-ikuskaritza bat egiten dute, Danimarkako Gizarte Gaien Ministerioak sortutako eta erakunderako egokitutako autoebaluazio-tresna baten bidez. Horrekin batera, urtean behin, kanpo-ikuskaritza bat egiten dugu.

Laneko Arriskuak Prebenitzeko Sistema

Arlo eta negozio guztietan, lan-arriskuak prebenitzeko sistema batez osatuta dago pertsonen ematen zaien arreta. Sistema horrek indarreko legeak bete eta sistematikoki jarduteko aukera ematen du, hobetzeko elementuak identifikatzeaz gain.

Sistemaren kudeaketa Prebentzio Zerbitzu Erkideku baten bidez egiten da. Eroskiko →

Prebentzio Zerbitzuko Zuzendariak zuzentzen du, eta jardunbideak, politikak, planak eta helburu komunak ezarri eta koordinatzen ditu; 5.3. kapituluaren ("Pertsonak") xehatuta daude horiek guztiak. Helburu horiek lortzeko, kudeaketa-organoak daude; besteak beste, Segurtasuneko eta Osasuneko Batzordea, Prebentzio Ordezkariek eta beste eragile batzuk (adibidez, Prebentzio Koordinatzaileak).

Ingurumena Kudeatzeko Sistema: ECOPLAN

Garapen iraunkorarekin eta geroko belaunaldien oinarritzko beharrak asetzearrekin dugun konpromisoak zera eskatzen du: ingurumenarekiko errespetua integrazioa eta gizarte-ongizatea eta helburu ekonomikoak uztartzeko ahalegina egitea. Guretzat, klima-aldaketan ahalik eta eraginik txikiena izatea, baliabide naturalak babestea, hondakinak kudeatzea eta biodibertsitatea zaintzea eginbeharrak dira.

Kalitate eta Ingurumen Sailak zuzentzen du ingurumen-politika; arlo eta negozio guztietan ezarritako helburuak betetzen direla zaintzen du sail horrek. Horrez gain, kontsumitzaileen eta gizartearen sentiberatasuna sustatzen dugu, Idea Sana EROSKI prestakuntzako eta informazioko kanpainen bidez.

Ingurumenaren defentsa zuzentzen duen kudeaketa-tresna ECOPLAN da. Horren protagonistak erakunderako pertsonak dira, eta →

konpromiso indibiduala eta kolektiboa biltzen ditu. Honela gauzatzen da konpromiso hori:

1. Asmo handiagoko konpromisoak hartzea eramango gaituen jarrera proaktiboa hartuz.
2. Gure jarduerarekin lotutako ingurumen-eragina kontrolatuz, eragotziz edo txikituz.
3. Kudeaketa-sistemak ezarriz (urtean

kuantifika daitezkeen helburuekin) eta horiek baliabidez hornituz.

4. Ingurumenaren babesa produktu eta zerbitzuak ikertzeko eta garatzeko prozesuan sartuz, ingurumen-ekimenen errentagarritasuna bilatuz eta negozio-aukera berriak identifikatuz.

5. Erakundeko maila guztiak informatuz eta prestatuz, garapen iraunkorrera bideratzeko.



Agintariekin, tokiko komunitatearekin, sektoreko erakundeekin, hornitzaileekin eta kontsumitzaileekin komunikazio-bide arinak ezarriz, gure jardueraren eraginak jakinarazteko, baita eragin horiek txikitze erabiltzen ditugun baliabide eta teknologienak ere.

Sistema Ekonomiko-finantzarioa: ECOFIN

Enpresa-erakundea garen aldetik, gure lehen erantzukizuna gure alderdi interesdunentzat aberastasuna sortzea eta talde egonkorra bihurtzea da, emaitza ekonomikoen egonkortasuna eta horiek gizartean banatzen direla bermatzeko.

Enpresa-erakunde garen aldetik, gure lehen erantzukizuna gure alderdi interesdunentzat aberastasuna sortzea eta helburu ekonomikoak lortzea da. Helburu ekonomiko horiek, gure konpromiso etiko eta sozialekin batera, gure eginkizuna eta balioak garatzeko balio behar dute, baita gizartearen beharrak asetzeko eta bizitza-kalitatea hobetzen laguntzeko ere.

Analisi ekonomiko-finantzarioaren helburua gure emaitza kontrolatzea eta horren segimendua egitea da, eta maila txikien (zentro bakoitza) zein maila handien Ustiapen-kontua eta Egoera-balantzea erabiltzen da horretarako. Erreferentziatzko egoera finantzario horiek hileroko erkatzen dira Kudeaketa Planarekin eta aurreko urteetako datuekin, beste politika batzuk eta neurri zuzentzaileak eskatzen dituzten desbideratzeak eta/edo joerak hautemateko.



2004. urtean barne-antolamendua berriro diseinatu ondoren, Ondare Bermerako Saila sortu genuen. Hierarkikoki, Korporazio Arloaren mende dago, eta, independentzia eta analisi-zorroztasun handiagoak izateko, txosten ekonomiko-finantzarioak eta barne-ikuskaritza egiten zituen zuzendaritza komun zaharretik bereizita. Sail berriaren helburua saltokietan administrazio- eta prozedura-ikuskaritzak egitea da, eta horien ondoren Barne Ikuskaritzaren Txostena egitea, alegia, hilean behingo balorazio xehatua. Txostena Kontseilu Sozialak eta zuzendari guztiek aztertzen dute.

Gure negozio-bolumena eta tamaina duten enpresa guztiek bezala, kanpo-ikuskaritza egin beharra dugu, kontabilitateko egoera egiaztatzeko. Ikuskaritza horren txostena Batzar Nagusian aurkezten da, onar dezan.

4.3 Kanpo-konpromisoen kudeaketa

Gizarte-erantzukizunarekin dugun konpromisoa ez da politika inprobisatua edo iragankorra. Beti eta jarduera garatzen duen leku orotan proiektu ekonomikoa eta soziala garatzeko ahaleginak egiten dituen kooperatiba-enpresa honen balio kolektiborik bereizgarrietako bat da.

Hain zuzen, Eroski Fundazioaren bidez, Gizarte Ekintzako proiektuak garatzen ditugu, NBEren 2015. Milurtekoko Helburuen Deklarazioan zehaztutako lehentasunen arabera. Hori dela eta, hitzarmenak sinatzen ditugu gobernuz kanpoko erakundeekin, ezagutzak eta ahaleginak batzeko eta, beraz, komunitate osorako onura gehiago lortzeko.

Horrela bada, Gizarte Erantzukizuneko politikak zeharka ezartzen ditugu. Iraunkortasun Memorian, Global Reporting Iniatibaren funtsezko adierazleen bidez ematen dugu horien berri; horrez gain, Idea Sana EROSKI prestakuntzako eta informazioko programarekin laguntzen dugu politikok garatzen. Azkenik, adierazle horiek barrutik kudeatzen dira, Batzorde Etikoaren bidez.

Bestalde, Eroski Taldea 2002an sinatutako Munduko Itunaren (Global Compact) printzipioen sinatzaileetako bat da, eta 2004ko martxoan sortutako Munduko Itunaren Espainiako Elkarteko kide-fundatzailea. Eroski Taldeak aktiboki dihardu, elkarte hori eta horren printzipioak beste erakunde batzuetara hedatzeko lanean. Inplikazio-maila horren →

ondorioz, elkarteko Mahai Karratuko kide iraunkorra da Eroski Taldea. Mahai hori elkarrizketa-gunea da, eta, bertan, enpresak, GKEak, Hezkuntza Entitateak eta Erakunde Publikoak eta Sozialak biltzen dira, elkartearen printzipioak bultzatzen dituzten jarduera onak zehazteko eta diseinatzeko.

Munduko Itunean sartu ginenetik, gizarteari eta gure alderdi interesdunei jakinarazten dizkiegu elkartearen 10 printzipioak betetzen izandako aurrerapenak, Aurrerapen Txosten baten bidez. Txosten hori memoria honen III. eranskinarekin batera dago, eta Munduko Itunaren web orri ofizialean (www.globalcompact.org) argitaratuta.

Horrez gain, gizarte-erantzukizuna bere egin duen enpresa bat garen aldetik, gure konpromisoa gizarteko beste eragile batzuei jakinarazten ahalegintzen gara. Hori dela eta, enpresen estrategien barruan gizarte-erantzukizuneko politikak nola aplikatu zehazten duten hausnarketa- eta eztabaida-gune nagusietan hartzen dugu parte, bai eta estatuek, komunikatutako ekintzen egiazkotasuna eta garrantzia bermatzeko,

jarraiera horiek nola arautu aztertzen duten guneetan ere; besteak beste, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioko Adituen Foroan.

Espainiako zenbait kontsumo-kooperatibatako kideak gara, esate baterako, Hispacoopakoak, →

hau da, Espainiako kontsumitzaile-kooperatiben konfederaziokoak, eta horietan kontsumitzaileen elkarte gisa eta erakunde kooperatibo-enpresarial gisa jarduten dugu.

Erakunde hauetan hartzen dugu parte:

- Munduko Ituna
- Munduko Itunaren Espainiako Elkarte (ASEPAM)
- Global Reportin Initiative
- Fundación Entorno fundazioaren patronatua
- Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioko Gizarte Erantzukizuneko Adituen Foroa
- Euskadiko Kontsumo Kooperatiben Federazioa
- EURO-COOP: Kontsumitzaileen Kooperatiben Europako Erakundea
- ICCO, Consumer Co-operative International
- Gizarte Ekonomiako Enpresen Konfederazioa
- Ekonomia eta Kontseilu Soziala (EGK)
- Gizarte Ekonomia Sustatzeko Kontseilua
- Kontabilitateko eta Enpresa Administrazioako Espainiako Elkarteko (AECA) Gizarte Erantzukizuneko batzordea
- Espainiako Normalizazio Erakundeko (AENOR) Gizarte Erantzukizuneko Eskuliburua egiteko taldea
- Iraunkortasunaren Euskal Elkarte
- Espainiako Kontsumitzaileen Kontseilua
- Kontsumoko Institutu Nazionala
- Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Kontseilua
- Sustapeneko Zuzendaritza Nagusiko Kontsumo Enpresen Behatokia
- CIOA, Elikagai Antolamenduko Ministerioarteko Batzordea
- Banaketa Enpresa Handien Espainiako Elkarte (ANGED)
- Merkataritza Kodifikazioko Espainiako Elkarte (AECOC)
- EBko Energiaren Kontsulta Batzordea

5

Aurrerapen-urtea. Aberastasuna eta ongizatea sortzen

- 5.1 Kontsumitzaileak
- 5.2 Ekonomi eta kultur garapeneko eragilea
- 5.3 Pertsonak
- 5.4 Etorkizuneko belaunaldiak: ingurumena

Aurrerapenen-urtea. Aberastasuna eta ongizatea sortzen

Eroskin, erakunde sozialki arduratsua izaten saiatzen gara, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-aberastasuna sortzen duen hazkunderan laguntzeko, aberastasun hori bazkideen, langileen eta komunitatearen artean elkartasunez banatzeko eta gizarte-ongizatea eta giza eskubideekiko errespetua sustatzeko.

Gure ingurunearekin inplikatzeko gara, eta, 1999an, Eroski Fundazioa sortu genuen, jokabide etikoaren alde egiteko, komunitateari informazio baliagarria eta praktikoa emateko eta garapen iraunkorra sustatzen duten gizarte-ekimenei laguntzeko. Horrenbestez, gure gizarte-ekintzako kanpainetan gurekin elkarlanean dauden kontsumitzaile Lagunen partaidetza bideratzen dugu; kanpaina horiek, IV. eranskinean ikus daitekeenez, Nazio Batuen 2015. Milurtekoko Helburuen araberrakoak dira.

Pertsonengatik, alegia, jabe zein protagonistengatik dugun ardurari esker, SA:8000:2001 Arauaren egiaztagiria lortu dugu, bai eta horri eutsi ere. Giza eskubideen defentsarekin eta horiekiko errespetuarekin konprometituta gaude, eta gure hornitzaileak ere konprometituta egotea nahi dugu. Hori dela-eta, aldi behin, ikuskaritzak egiten dizkiegu, pertsonal-politiketan aurrera egiten dutela eta lan-arauak betetzen dituztela ziurtatzeko.

Gure erakundearen barruan, lan-bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko zenbait politika garatu ditugu. Horrez gain, lan egonkorra eta kalitatezkoa sortzeko apustua egin dugu, eta, beraz, aldi baterako langileen kopurua txikitu dugu.

Kontsumitzaileak defendatzeko konpromisoa dugu; ildo horretatik, kontsumo osasungarria eta kalitatezkoa eskaintzen diegu, produktuen kalitate-estandar handien bidez. Horrez gain, prestakuntza- eta informazio-programa zabala garatzen dugu, Consumer EROSKI aldizkariaren eta Idea Sana EROSKI programa integralaren →

bidez; hau da, bizi-aztura onak, osasungarriak, ingurumenarekiko errespetuzkoak eta solidarioak irakatsi nahi dizkiegu.

Garapen iraunkorrarekiko konpromisoaren ondorioz, ingurumen-politika konprometitua garatzen dugu. Horretan, etengabeko hobekuntzako irizpideak aplikatzen dira, gure jardueraren eragin ekologikoa txikitzeko eta garraioaren energia-eraginkortasuna handitzeko; horretarako, ibilbideak berriro diseinatu, kamioien zama-edukiera optimizatu eta erregai alternatiboak erabiltzen ditugu. Horrez gain, zenbait sektore-forotan hartzen dugu parte, berotegi-efektuko gas gutxiago isurtzeko eta klima-aldaketan dugun eragina txikitzeko. Ingurumen-kudeaketa gure hornitzaileek ere erabil dezaten, e+5 metodologia erabiltzen dugu, Fundación Entorno delakoarekin, jarrera arduratsuak sustatzeko eta ingurumena errespetatzeko eta babesteko printzipioak hartzeko.

Gizarte-erantzukizunarekin dugun konpromisoaren ondorioz, gizarte-ikuspegia aintzat hartuta lan egiten duen erakundea gara; eta, beraz, eztabaida- eta iritzi-gune nagusietan hartzen dugu parte. Zehazki, gizarte-erantzukizuneko politikak zehazteko prozesuetan hartzen dugu parte, GKEekin eta erakundeekin elkarlanean gaude sentsibilizazio- eta laguntza-kanpainetan, nazioarteko konpromisoak geure egiten ditugu –esaterako, Nazio Batuen Munduko Ituna– eta Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioko Adituen Foroan lan egiten dugu, Espainiako Gizarte Erantzukizuna arautuko duen arautegia zehaztu eta idazteko.

5.1 Kontsumitzaileak

Gure jarduera-inguruneko partaide garen aldetik, kontsumitzaileen eskubideen defentsarekin, ingurumenarekin eta gizarte- eta kultura-ekimenen sustapenarekin konprometituta gaude. Eroski Fundazioak irabazien % 10 gizartearen berrinbertutz hedatzen ditu bere balioak

2003-2004ko aurrerapenak		2002	2003	2004
Eskaintza berritzailea				
Merkataritza-sarea	Merkataritza-sarea	1955	1556*	1790
Balio erantsiko produktu, gune eta zerbitzu berriak	Eroski-Red ordainketa-txartelaren titularrak	875.000	945.000	1.006.526
	Travel Club txartelaren titularrak (aktiboak)	2.182.382	2.091.483	2.408.932
	Regalos entregados por tarjeta Travel Club	423.268	469.853	621.322
	Kontsumitzaileen arreta-telefonoa (dei kopurua)	14.788	31.995	56.075
Teknologia berriak	Lineako erosketak estalitako herriak	31	37	81
Sektoreko lehenen artean	Erosketa-ekintzen kopurua (milioitan)	196*	209	212
	Eguneko bezeroak, batez beste	654.586*	697.066	708.597
Konfiantzazko produktuak				
Osasuna eta segurtasuna bermatzen ditugu	Eroskiko produktuei egindako kalitate-azterketak	2.769	3.075	3.877
	Eroski Natur produktuei egindako kalitate-azterketak	2.240	2.651	3.992
Hornitze-katearen kontrola	Eroski Natur produktuen hornitzaileei egindako ikuskaritzak	370	1.648	955
	Eroskiko hornitzaileei kalitatea kontrolatzeko egindako ikuskaritzak	39	86	130
	Produktu-kontrola, saltokietan	600	887	999
Bizitza osasungarriago baten alde				
Prestakuntza- eta informazio-lan handia	Consumer EROSKI aldizkariak/urtean	2.695.000	3.850.000	3.545.000*
	Idea Sana EROSKI eskoletako eta kanpainetako parte-hartzaileak	334.000	580.540	1.181.499

* Datu horiek aldatu egin ziren Consum Koop. Elk. Eroski Taldetik irtetean.

HOBETZEN JARRAITUKO DUGU...

...kontsumitzaileen beharretara egokitutako konponbideak emateko helburuak jarritz. Horretarako, gure produktuen kalitatea, jatorria eta ongarritasuna bermatuko ditugu, eta kontsumitzaileentzako prestakuntza- eta informazio-programak jarriko ditugu martxan, haien eskubideak defendatzen eta bizi-aztura onak, osasungarriak, ingurumenarekiko errespetuzkoak eta solidarioak sortzen laguntzeko.

Eskaintza berritzailea

Zure beharretara egokitutako konponbideak ematen ditugu

Kontsumitzaileengandik hurbil

Eroskin, kontsumitzaileekin dugun konpromisoari eusten diogu. Horretarako, kalitatezko produktuak ematen dizkiegu prezio lehiakorretan, eta kontsumo arduratsu, osasungarri eta bermekoa lortzeko dituzten behar eta itxaropenak asetzen dizkiegu.

Hasiera-hasieratik, bezero eta kontsumitzaileen beharrei erantzutearekin uztartu ditugu gure garapena eta hazkunde ekonomikoa. Horretarako, gure merkataritza-sarea handitzen eta establezimendu-eredu erosoagoa eta erabilgarriagoa bilatzen jarraitzen dugu. Nola? Produktu, gune eta zerbitzu berriak sartzen ditugu, kudeaketa hobetzen dugu eta aurrerapenak sartzen ditugu informazio-sistemetan eta kate logistikoan. Horri guztiari esker, urtero gure dendetara datozen 200 milioi bezero baino gehiagoren gogobetetasuna hobetzen lagundu dugu.


Gure kezka nagusia gizartearen interesak identifikatzea da. Helburu horrekin, iritzi-ikerketak egiten ditugu, gure produktuei buruz, ematen dugun informazioari buruz eta garapen iraunkorrean dugun eraginari buruz dituzten kezkak ezagutzeko eta barneratzeke.

Eroski Fundazioak, Enpresa Institutuarekin, Kontsumo Barometroa argitaratzen du, 2000tik. Horren bidez, asmo handiko ikerketa bat egiten du urtean behin, Espainiako kontsumitzaileen kezka, sentiberatasun

eta pertzepzioak sistematikoki eta ordenan aztertzeke. 2004an, gai hauek azertu ziren: elikagaien kontsumoaren inguruan duten konfiantza-maila, kontsumo-gaiei buruz jasotzen duten informazioaren inguruko gogobetetasun-maila, interes ekonomikoak, ingurumen-arazoarekiko sentiberatasuna, elkartasuna eta bizi-azturak.

Ikerketatik ondoriozta daitekeenez, gero eta konfiantza handiagoa dute kontsumitzen dituzten elikagaiekiko, eta apur bat handitzen da a priori mesfidantza handiagoa sortzen duten elikagaiekiko konfiantza (hots, haien ustez industrial edo artifizialak direnekiko).

Kontsumo-gaiei buruz jasotzen duten informazioari dagokionez, aurreko urteetako balioak errepikatzen dira, baina supermerkatu eta hipermerkatuek ematen duten informazioarekiko gogobetetasuna handitu egin da. Aitzitik, zenbait gairi –adibidez, hondakinak birziklatzeari eta bidezko merkataritzari– buruzko kontzientziarioa eta gizarte-sentiberatasuna txikia da, oraindik ere.



Eroskin, hori guztia osatzeko, elkarriketak egiten dizkiegu kontsumitzaileei, gure zerbitzuetan eta, batik bat, freskoen sailtan (Freskometroa) lortzen duten gogobetetasun-maila balioztatzen; izan ere, freskoen sailak dira gure elikagai-eskaintzaren bereizgarriak, bai eta freskotasunarekiko eta jatorrizko eta zaparezko bikaintasunarekiko konpromisoaren adierazgarriak ere.

Horrez gain, kalitatea bermatzen duten produktuak oso prezio lehiakorretan eskaintzea zeinen garrantzitsu den aintzat hartuta, kategoria bat sortu dugu oinarritzko produktuak sustatzeko: "Aurrezpen Handiena". Marken kalitate-estandarrei eutsita, % 7 jaisten da haien prezioa, batez beste, merkatuko ohiko prezioekin alderatuta.



Negozio-linea berriak

Ireki diren 279 establezimenduetan eta kudeaketaren eta eraginkortasunaren hobekuntzan egindako inbertsioak zerbitzu hobea eta errentagarritasun ekonomiko handiagoa dakartza berekin, eta horrek kontsumitzaileekin eta gizartearekin dugun konpromisoan du eragina.

Gure Plan Estrategikoan bildutako dibertsifikazio-politikaren ildoan, oso negozio desberdinak ditugu; besteak beste, gasolindegia, higiezin agentziak, optikak, bidai-agentziak, kirol-dendak, perfumeriak eta aisia- eta kultura-dendak. Halaber, beste negozio-linea batzuk



garatu ditugu –hala nola, janari prestatua (Multifood Koop. Elk.)–, eta baita beste denda-mota batzuk ere (Sportland, Forum eta, duela gutxiago, Abac, aisia eta kulturak espezializatutako erreda, aisialdiaren erabilera aktiboa sustatzeko).

2003-2004 denboraldian, Eroskik bere produktu-sorta handitu du, besteak beste, haurtzaintzako produktuak eta nazioarteko zapoak (izozkiak, foieak, gaztak...) sartuz. Horrez gain, marka propioko drogeria-produktu gehiago ere baditu (garbigarriak, aluminioak, filmak...). Produktuak dibertsifikatzeko joera horretan, landare-kontserba ekologikoak eta janari prestatuko 49 erreferentzia berri erantsi ditugu (Eroski →

Restauralia markaren pean); azken horren helburua kontsumitzaileei kalitate handiko produktu hoztuak ematea da. Horrez gain, Eroski Natur markako produktu freskoak hedatzera jo dugu; alde batetik, lurralde gehiagotan saltzen ditugu, eta, beste batetik, produktu kopurua handitu dugu. Eta hori guztia kalitatea bermatzeko konpromisoari eutsita.

Eskaintzaren berrikuntza

Etxeko kontsumoa errazteko, Eroski online zerbitzuaren estaldura-azalera handitu egin dugu. Zenbait urtez Gasteizen eta Bilboko eragin-eremuan funtzionatu ondoren, Iruñean hasi gara, eta, laster, Gipuzkoan, Asturiasen, Kantabrian eta Errioxan egongo gara. Zerbitzu hori www.compraonline.grupoeroski.com web orriaren bidez ematen dugu, eta ohiko produktu guztiak erosteko eta etxean jasotzeko aukera ematen du, aukeratutako egunean eta orduan.

Kontsumitzaile eta bezeroen beharrei buruz ezagutza handia dugu eta, beraz, haien bizitza-ohiturekin bat datozen produktuak egokitu eta diseina ditzakegu. Hori dela-eta, berriro diseinatu ditugu gure dendak, eta orain erosoagoak dira eta freskoek azalera handiagoko sailak dituzte (produktu freskoen kalitate handiak duen onespina aintzat hartuta). Horrez gain, berrikuntzak sartu ditugu beste sail batzuetan, hain zuzen, produktu-sortan eta kokapenean; adibidez, ardandegian, perfumerian eta elikadurazkoak ez diren beste batzuetan (zapatak, jostailuak, landareak eta teknologia). Halaber, zerbitzu gehigarriak aberastu egin ditugu (finantza-produktuak, aseguruak eta salmenta-bide berriak).

Teknologia berriek ematen dituzten abantailak aprobetxatuta, Eroski Bidaiak agentziak bidaiak interaktiboki diseinatzeko eta kontratatzeko aukera ematen du; horrez gain, bezeroen arreta-telefonoa eta denda birtuala ere baditu, eta Eroski Bidaiak Kluba →

sortu du, bidaiariek esperientziak trukatzeko, jolas-jarduerei buruzko informazioa lortzeko, eskaintzak posta elektronikoaren bidez jasotzeko eta intereseko lekuei buruzko erreportajeak ikusteko.

Halaber, balio erantsiko zerbitzuekin, informazio egokitua eta ordainketa-erraztasunak ematen ditugu, baita bazarreko produktuak, etxetresna elektrikoak, ehungintzako produktuak eta bidaiak erosteko aukera ere. 2004an, 860.279 titularrek zuten Eroski-Red ordainketa-txartela (hain zuzen, 1.006.526 txartel), eta Travel Club puntu-txartelak 621.322 opari baino gehiago eman zituen.

Komunikazio-bide iraunkorra eskaintzeko, bezeroen arreta-telefonoa dago, dohainik. Guztira, 56.075 dei jaso ziren. Horietatik, % 74 informazioa eskatzeko izan zen, % 2 iradokizunak egiteko eta % 24 intzidentzien berri emateko.

Konfiantzazko produktuak

Jatorria eta kalitatea bermatuta

Produktuen egiaztagiria eta elikagaien segurtasuna

Produktuen kontrol zorrotza eskaintzen diegu gure bezeroei, eta horrek produktu horien elikagai-segurtasuna eta kalitate handi-handia bermatzeko aukera ematen digu; gainera, informazio sakona eta haien beharretara egokitua ematen diegu.

Gure Kalitate Politikan, hauek sartzen dira: produktuak laborategian aztertzea, hornitzaileak homologatzea, banaketa-plataformetan eta saltokietan kalitate-sistemak ezartzea, eta kontsumitzaileekin ikerketa sentzorialak eta erabilera-probak egitea.

2003an, Unitate genetikoa gehitu zaie gure laborategiko Unitate kimikoari eta Unitate mikrobiologikoari. Hiru unitate independente eta egiaztatu dira, eta elikagaien segurtasuna kontrolatzeko modu berriak sartu dituzte:

-Eroski produktuak kontrolatzea. Prestige petrolio-ontziaren hondamen ekologikoak eragindako kezkaren ondorioz, analisi-teknika berriak sartu dira, Bizkaiko Golkoko kostalde osoko itsasbazterreko arrantza eta moluskuak kontrolatzeko. Horrez gain, piperrautsa edo kolore gorriko espeziak dituzten produktuak aztertzen dira, horrelako produktuek osasungarritasun-zalantzak sortzen baitizkie kontsumitzaileei.

- Elikagai-alertarik izanez gero, ekitea. Analisi-tresna zehatzak, elikagai-alertarik izanez gero berehala ekiteko.

Unitate kimikoa:

- Alergenoen presentzia aztertzea. Glutena, kakahuetea, esnea, arrautza eta soja dagoen ebaluatzea, badaudela adierazten ez duten baina kutsadura gurutzatuaren ondorioz izan ditzaketen elikagaietan.

- Zenbait mantenugai aztertzeke berariazko kanpainak. Aberastutako produktuen zuntza, gantz-azidoak, omega-3 eta bitaminak aztertzea, behar bezala etiketatuta daudela egiaztatzeke.

Unitate genetikoa:

- Elikagai-matrizeetan patogenorik dagoen hautematea. Denbora-tarte txikiagoetan patogenorik dagoen identifikatzea, unitate mikrobiologikoaren analisia osatzeko.

- Arrantza-espezieak identifikatzea. Espezieak identifikatzea

2004an, 7.869 produktu aztertu ziren; horietatik, 3.992 unitate mikrobiologikoak aztertutako Eroski Natur produktuak izan ziren (frutak, barazkiak eta haragia), eta 3.877 Eroski

markako produktuak edo unean uneko kasuak, laborategiak kalitateari edo osasungarritasun-baldintzei buruz zalantzak daudela uste izan duenean.

Elikagaien segurtasunaren kontrola osatzeko, higiene-kontrolak egiten dira saltokietan eta gure plataformetan; batez ere, haragi-produktuak egiten diren plataformetan. Kontsumo osasungarria eta kalitatezkoa emateko dugun konpromisoa osatzeko, ikerketarako bekak eta laguntzak ematen ditugu, arlo hauetan ikertzeko: Bioetikan eta Enpresan, Nutrizioan eta Osasunean eta Elikagaien Segurtasunean. Horrez gain, berrikuntza teknologikoko zentroein laguntzen diegu, eta lankidetzaz horren ondorioz, bi proiektu berri jarri ditugun martxan, elikagai-arloko I+G planaren barruan:

- Elikagaien analisiak PCR bidez egiteko teknikak garatzea, Gaiker Zentro Teknologikoarekin lankidetzan. Laborategian transgenikoak, salmonella eta E.Coli hautemateko teknikak sartzea, eta hegalaburren eta mihi-arrainen espezieak identifikatzea.
- Freskoen sailetan trazabilitatea kudeatzeko sistema automatizatuak. Freskoen plataformetatik saltokietaraino, trazabilitatea ziurtatzeko sistema informatizatuak.
- Haragi-produktuak egiteko, ontziratze eta banatzeko sisteman berrikuntza-proiektua, Gaikerrekin, Ikerlan-ekin eta Ulma enpresarekin lankidetzan. Haragi freskoa atmosfera eraldatuko sistema batean maneiatzeko eta ontziratze prozesua hobetzea, produktuaren kalitate-bermea eta balio-bizitza handitzeko.

Horniketa-katearen kontrola

Gure hornitzaileekin elkarlan estuan dihardugu, produktuak eta kalitate-estandarrek eta kudeaketa logistikoa bermatzen dituzten fabrikazio-prozedurak zehazteko. Horrez gain, aplikazio teknologikoak sartzen ari gara, hala

nola, irrati-frekuentzia biltegietan, ekoizpen-linea automatikoak freskoetarako, haririk gabeko komunikazioa kamioiak kokatzeko, eta ekoizpen handiko tresnak plataformak hornitzeko.

Gure produktu guztien kalitate-, jatorri- eta zapore-ezaugarriak ziurtatzeko, kontrol-mekanismo zorrotzak ezartzen ditugu. Kontrol horiek are zorrotzagoak dira Eroski Natur markako produktuen hornitzaileen kasuan; izan ere, horrez gain, homologazio- eta egiaztapen-prozesuetan ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

Eroski Natur markako hornitzaileak homologatzeko prozedura

Merkataritza- eta logistika-aldagaiak balioztatu ondoren, Kalitate Sailak, hasierako ikuskaritza batean, hornitzaileen kontrol-sistemak egiaztatzen ditu, produktuaren trazabilitatea,

arau tekniko-sanitarioak betetzea, ekoizpen-sistema naturala aplikatzea eta eskatutako eskakizunak betetzea bermatzeko. Hori guztiak egiaztatu ondoren, segimendu- eta analisi-ikuskaritzak egiten ditugu, aldi behin, produktu bakoitzerako berariazko kontrol-plan baten arabera.

Akreditazioak eta Produktuen Egiatagiriak, Eroski Taldeko Kudeaketa sistemak

EGIAZTAPENA	ENTITATEA	ARAUA	EGIAZTAGIR. DATA	IRISMENA
Zorrotzako haragi- produktuen transformazio- zentrala	AENOR	9001:2000 UNE-EN ISO	1995	"Haragia eta haragi-produktuak hornitzea, maneiatzea, zatikatzea, biltegitratzea eta Eroski Taldeko saltokietara garraiatzea" (2002)
Eroski taldeko Produktuaren Kalitate Laborategia	ENAC	17025:2000 UNE-EN ISO/IEC	1997	"Hornidura-animalien deribatuen hondakin zoosanitarioen analisi fisiko-kimikoa eta elikagaien analisi mikrobiologikoak" (2002)
Zornotzako produktu frskoien plataforma	AENOR	9001:2000 UNE-EN ISO	1999	"Produktu freskoez (txarkuteria, frutak, barazkiak eta arrain freskoa) hornitzea eta horiek Zubietako plataformatik (Zornotza) Eroski Taldeko saltokietara banatzea. Produktu freskoez (txarkuteria, frutak eta barazkiak) hornitzea eta horiek Gasteizko plataformatik Eroski Taldeko saltokietara banatzea. Arrain freskoaz hornitzea eta Pintoko plataformatik (Madril) Eroski Taldeko saltokietara banatzea" (2001)
Arteako Eroski hipermerkatua	AENOR	14.001 UNE-EN ISO	2000	"Ingurumen-kudeaketa"
"Eroski Natur" txahala	CERTICAR	1760 /2000 araudia	2000	"Eroski Natur txahalaren trazabilitatearen eta etiketaren alderdiak"
"Eroski Natur" landare-oilaskoa	SGS	45.011 UNE-EN ISO	2001	"Eroski Natur landare-oilaskoaren jatorriaren, hazteko metodoaren eta elikaduraren alderdiak"
Garberako eta Max Centerreko Eroski hipermerkatuak	Bureau Veritas Quality International (BVQI)	Zerbitzuaren Kalitatearen Berme Erreferentzia	2001	"Produktu freskoen sailetan zerbitzuaren kalitate-bermea"
Eroski bidaiak	Instituto para la Calidad Turística Española (ICTE)	Turismo Kalitatearen Q	2001	"Eroski Bidaien negozioaren kalitate-sistema ICTEK Turismo Kalitatearen Q lortzeko ezarritako kalitate-arauen eskakizunekin bat etortzea"
